

Izadi Furundarena Agirre

E maila • 1 saria

Izadi Furundarena Agirre naiz, 12 urte ditut. Beasaingo Ikastolan ikasten dut eta egindako lanak ilusioz egin banituen, sariak oraindik ere poz handiagoa eman dit.

Nire zaletasunen artean musika eta dantza daude batez ere, eta nola ez lagunekin egotea. Koloretako mundu batean amets egiten dut, kolore guztiak dauden munduan.



Doinua: Andre txarraren bentajak

KOLOREAK

Nire kolore gustukoenak
urdina eta morea,
urdina da itsasoa eta
negu txilintxa lorea,
Morea da masustaren zuku
gozoaren kolorea,
goroldioa berdea eta
horia ama orea

Soroko arbia da arrosa
tomatea da gorria,
txuria eta txiki-txikia
tomate horren zorria,
zilarrezkoa barraskiloen
bide estu bihurria,
koloreekin margotu nahi dut
ni bizi naizen herria